

Donostia, 2016ko otsailaren 19a

## IDAZKARI NAGUSIARI

### KONTROL MOZIOA, KONTRATUETAKO GIZARTE IRIZPIDEAK DIRELA ETA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, otsailaren 15eko Ogasun Batzordean kontratuetako gizarte irizpideen inguruan egindako interpelazioaren ondorioz.

### JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Udalak, gainerako administrazio publikoek bezala, zerbitzu publiko ugari dauzka enpresei kontratatuta. Besteak beste, bide garbiketa, hiri hondakinen bilketa, TAO zerbitzua, etxez etxeko laguntza, gizarteratze zentroak eta prebentzioa, haurtzaroa eta familia dira zerbitzu horietako batzuk, eta langile ugari egiten du lan horietan.

Zerbitzu horiek azpikontratatuta egonik ere, Udalak badu erantzukizunik zerbitzu horien kalitatean eta langileen lan baldintzetan. Onartezina da kontratazio publikoen bidez milaka pertsonaren lan baldintzak eskatea.

Ez gatoz inola ere bat erantzukizun publikoko zerbitzuak azpikontratatzeko grina horrekin, ez eta horretarako aitzakia kostuak aurrezteaz izatearekin ere; izan ere, kostu horiek ez dira aurretik enpresek dituzten mozkinen kontura, baizik eta ahaleginaren bizkar, dela soldata txikiagoa jasota, dela lan gehiago egin eta gutxiago kobratuta.

2013ko ekainaren 10ean, aurreko gobernu taldeak Donostiako Udalaren kontratazioan gizarte, ingurumen, etika, lan, hizkuntza eta berdintasun irizpideak sartzeko jarraibideak onartu zituen. Jarraibide horiek nahitaez sartu behar dira kontratuen administrazio baldintza berezien eta baldintza teknikoaren agiriak egitean, eta kontuan hartu behar dira kontratu txikietan ere, kontratu agiri guztietan sartuta.

Ongi irizten diegu jarraibide horiei, horrela Donostiako Udalak kasu egin beharra baitauka azpikontratutako udal zerbitzuei; areago, gure ustez, indarrean diren bitartean egin behar zaie jarraipena kontratuei, eta ez bakarrik sinatzen direnean, kontratu horietako batzuk hainbat urterako baitira.

Hala ere, uste dugu EAJren eta PSEren udal gobernuak, ikusita asmorik ere ez daukala Udalak zuzenean zer zerbitzu eman litzakeen aztertzeko, behintzat, ahal duen guztia egin beharko lukeela azpikontratutako zerbitzuak baldintza onetan eman daitezen hala onuradunentzat nola langileentzat.

Uste dugu gehiago ere indartu litezkeela 2013ko jarraibideak, eta, horregatik, hauxe da gure

## KONTROL MOZIOA

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari beste puntu bat eransteko Donostiako Udalaren kontratazioan gizarte, ingurumen, etika, lan, hizkuntza eta berdintasun irizpideak sartzeko jarraibideei, hitzarmen kolektibo baten indarraldia amaitzen denean, aurreraeraginez, enpresa esleipendunak ez ditzan gutxitu eskaintza aurkeztu zuenean indarrean zegoen hitzarmenari atxikitako langileen lan baldintzak.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari jaso dezala, Donostiako Udalaren kontratazioan gizarte, ingurumen, etika, lan, hizkuntza eta berdintasun irizpideak sartzeko jarraibideetan, hiru hilean behin txosten bat egin beharko dela jarraibidearen aplikazioaz. Txosten hori gobernu organoei eta udal taldeei bidaliko zaie, aldi berean.

3.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari jaso dezala, Donostiako Udalaren kontratazioan gizarte, ingurumen, etika, lan, hizkuntza eta berdintasun irizpideak sartzeko jarraibideetan, txosten bat egin beharko dela kontratu baten indarraldia amaitu baino sei hilabete lehenago, hura luzatzea beharrezkoa den edo ez ikusteko.

Sinatua: Amaia Martin Garin  
Irabazi Donostia Udal Taldearen bozeramailea